

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Angel Ugarteburu Meabebasterretxea

*Berriatua,
Bizkaia (1942)*

Aurkibidea



Biografia



Berriatuko Milloi auzoko Ikaranagusi baserrian jaioa. Aitak hiru ume izan zituen lehenengo emaztearekin eta, alargundu zenean, haren ahizparekin ezkondu eta beste hamalau izan zituen, nahiz eta denak ez ziren aurrera atera. Milloiko auzo- eskolan ibili zen umetan Angel. 12 urterekin, abadeak proposatuta, Derioko seminaria joan zen. 1960ko hamarkadako giro nahasia ikusita, irakaskuntza aldera jotzea pentsatu zuen eta Erromara joan zen lizentziatura ateratzera. Handik itzulita, 1972an, Eibarko ikastolan hasi zen lanean. Sei urteren ostean Elgoibarko ikastolara pasa zen, ordurako Elgoibarren bizi zen eta. Urte batzuk geroago Elgoibarko institutura joan zen eta bertan lan egin zuen, erretiroa hartu arte. Ikastolaren hasierako urteetan umeentzat euskarazko materiala sortzen ibili zen, ahozko tradizioko ipuinak oinarri hartuta, eta Kirikiñoren 'Abarrak' ipuin- bildumak euskara batuan jarri eta egokitu ere egin zituen. Elgoibarko Izarraren baitan sortu zen Elgoibarko bertso- eskolaren sortzailea izan zen eta bera izan zen irakaslea hasierako urteetan.

Zintak

BRT-035

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Elgoibarren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2022-05-19
- **Iraupena:** 81 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Hamazazpi anai-arreba

- **Erref:** BRT-035/002
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:12. **Bukatu:** 00:02:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Milloi auzokoa eta hamazazpi anai-arrebako familiako kidea. Aitak zerrenda pasatzen zuen gauetan. Inoiz ez zuten goserik pasatu.

2. Milloiko auzo-eskolatik Erromara ikastera

- **Erref:** BRT-035/005
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:04:26. **Bukatu:** 00:06:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Umetan, Milloiko auzo-eskolan ikasi zuen. Herriko abadearen bitartez, Derioko seminarioan jarraitu zituen ikasketak. Erroman irakasle-ikasketak egin zituen.

3. Eibarko ikastolaren sorrerako irakaslea

- **Erref:** BRT-035/006
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:06:19. **Bukatu:** 00:07:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Eibarko ikastolan hasi zen lanean Serafin Basauri, Margarita Murgizu, Juan San Martin eta Imanol Laspiurrekin. Sei urtez lan egin zuen Eibarren.

4. Eibarko ikastola: hasierako kokapenak

- **Erref:** BRT-035/007
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:07:07. **Bukatu:** 00:08:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Hasierako Eibarko ikastola herri guztitik sakabanatuta zegoen: Zezenbiden, Urkin, elizako lokaletan, karmeldarretan... Ikasle kopurua oso azkar handitu zenez, ikastola handi bat eraikitzeko beharra sortu zen. Bilerak.

5. Eibarko ikastola: Iturbururen kokapena

- **Erref:** BRT-035/008
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:08:47. **Bukatu:** 00:10:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Eibarko ikastola berria mendian eraikitzeko erabakiaren zergatia. Juan San Martinentzat urrutiegi zegoen. Arkitektoak, ikastolako diseinuan irakasleen beharrak kontuan hartu zituen. Materialaren bilketa.

6. Eibarko ikastolako hasierako irakasleak

- **Erref:** BRT-035/010
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:10:54. **Bukatu:** 00:12:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

1972an hasi zen Eibarko ikastolan lanean. Zezenbiden ibilitako irakasleak: Maria Jesus Garetxana, Margarita Murgizu, Juan Mari Perez, Kontxi Mandiola, Libe Sarasua, Jon Elkoru, Imanol (Laspiur)...

7. Guardia Zibilaren bisitak ikastolan

- **Erref:** BRT-035/011
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:12:20. **Bukatu:** 00:14:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Guardia zibilaren bisitak Eibarko ikastolako lokaletara. Kuartela, Zezenbideko lokalaren parean zegoen. Behin Urkiko lokaletan agertu zen guardia zibila.</p>

Transkripzioa

Kurioso bezela, ba, orduan, karo, Zezenbiden bertan ere ba guk Guardia Zibilen kuartela bertan aurrian geunkan eta, bueno, han mobitzen giñan. Seguru asko bijilatuak egongo giñan. Bueltan, ni Ermutik eta Hambre aldetik-eta juten nitzan etxe aldera eta iñoiz Guardia zibilak "alto" eta abar, ta begiratzen, eta "¿De dónde vienes?" eta "¿Qué llevas?" eta halako gauzak eta. Behin gogoratzen naiz, zeozer graziosua izan zan, eskatu zidan

karneta ta guardia zibil batek irakurri zuen eta besteari "Oye, mira qué apellido lleva éste, Ugarteburu Meabebasterretxe...", eta nik leihotik "Es un topónimo" esan nion, eta holan beittu [bera] eta "¿Qué dice?", "Que es un topónimo". Holan beittu zion bestiak eta "Siga usted adelante, siga usted". Ta harek seguru asko pentsauko zuten, ba, insulton bat edo, badaezpadan, ez zien atrebidu... Bai, halakoxe kontuak, bai. Ta, ba, holan. Han egon giñen zerien eta gero beste egun baten, hori bai, etorri be egin ziren bi guardia zibilak bi pareja hara, Urkiko eskoletara. Ze guk orduan, geuk eitten gendun ee... ez euan libururik. Ein kontu, pentsatu, gerra aurreko Manuel Lekuonaren liburuak eta holako gauzak, eta bai, Federazioak ataratako apunten batzuk-eta bazeuden, baiña guk geuk sortzen gendun geure materiala, ipuiñak eta istorioak eta abar eta abar. Eta haintxe neuzkan mutillei banatzeko, eskolan neska-mutillei banatzeko, apal baten gaiñian. Eta guardia zibila etorri zan bi pare... pareja bat etorri zan, bikote bat, eta esan zigun "A ver qué es lo que tienen", eta ikusten eta "¿Esto qué es?" eta "Este es el material que se usa para leer "Ah, ¿sí?" ta tal. Bisita euki gendun ikusteko ia propagandarik-edo ze rollo zeuan, etorri zan behin guardia zibil pareja, e, baiña ondo, beste problema barik juan zan.

8. Haurrentzat euskarazko ipuinak eta liburuxkak sortzen I

- **Erref:** BRT-035/012
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:14:36. **Bukatu:** 00:17:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Lanetik kanpo, Angelek etxean ikasgelan irakurtzeko ipuinak idazten zituen. "Ipuinak eta egiak" deitzen ziren liburuxkak. Jose Luis Murgoitoren marrazkiak.

9. Haurrentzat euskarazko ipuinak eta liburuxkak sortzen II

- **Erref:** BRT-035/013
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:17:44. **Bukatu:** 00:20:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Haurrentzat ez zegoen material egokirik euskaraz. Angelek ipuinak sortu eta liburuxketan bildu zituen. Izenburuak. Berak eta Jose Mari Sagarnak sortutako bertso bat abeste du. Margarita Murgizu.

10. Falangeko udalekuak

- **Erref:** BRT-035/018
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:24:43. **Bukatu:** 00:26:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Milioiko eskolan gaztelaniaz ikasi zuen eta irakasle falangista zen. Falangeko udalekuak. Seminarioan ere gaztelaniaz egiten zuten eta gero jakin zuten abade asko euskaldunak zirela.

11. Seminarioan euskararekin lehen kontaktu akademikoa

- **Erref:** BRT-035/019
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:28:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Seminarioan, euskararen presentzia handiagotzen hasi zen 17-18 urte zituenean. Karmelo Etxenagusiak sartu zuen Angel euskal literaturaren barruan.

12. "Abarrak" liburuak euskara batura egokitzen

- **Erref:** BRT-035/020
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:28:20. **Bukatu:** 00:29:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Elgoibarko Ikastolako Elkartek, euskarazko literatura sortzeko eskatu zion eta Kirikiñoren Abarrak liburuak euskara batura egokitu zituen.

Transkripzioa

- Elgoibarrera etorri nintzenez, irakasleen elkarteak, hemengo ikastoletako irakasleen elkarteak eta, esan zidaten "zegaittik ez dozu zerbait euskeraz egiten?". Ta orduan, hain zuzen ere, `Abarrak´ 1 eta 2, `Abarrak´, Elgoibarren neguala, honeek bixak, `Kirikiño´ren `Abarrak´, ipuiñak eta irakurgai errezak, estilo hontakoak, aditzen dozu? Umeentzako egokiak direnak, eta `Abarrak´ izenakin, `Kirikiño´k - Ebaristo Bustintzak - egindako bi liburuak, e, bai, euskeratu gendun, proposatu nuen e... Ez, hobeto esateko, lagun batek esan zidan "Zergaitik hoiek ez dittuk euskera batura pixkat egokitzen?". Ta halaxe atara nittun hau berau mila bederatzirehun ta larogei ta batian. Ia oindiño artian Elgoibarko ikastolan neguan. Gero e... ikastola... gero institutura pasatu nintzan e... larogei ta bitik aurrera, jubilatute arte, institutuan jardun genun, ba, hor ere testugintzan ta holako gauzatan. Baiña hau liburuau marrazki aldetik eta oso marrazki politakin ta oso ondo egindako liburua da hau. E? Eta irakurgai errez-errezak, hau da, euskera batua. `Abarrak 1´, `Abarrak 2´... - Zeuk euskera batura pasau zendun hori...?

- Bai, bai, bai eta Elgoibarko ikasleei dedikauta ta bukaeran egin nuena izan zan esamoldeak, euskerazko jatorrizko zerak, esaerak eta abar, bildumatxoa, atzean.

13. Euskaraz ikasteko ilusioa zabaldu nahi zuten

- **Erref:** BRT-035/023
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:31:34. **Bukatu:** 00:33:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Euskarazko esamoldeak batu zituen Abarrak liburuetan. Ikasleei ahalik eta euskara aberatsena eskeini nahi zieten.

Transkripzioa

Hemen, uste dot hementxe zeudela honeek eee... esamoldeak. A, hemen dao, beittu, beittu. Bukaeran beti jarritta, ipuin bat... bakoitzean ikusten diren esamoldeak, e?

“Nondik eta handik”...“Nondik edo handik”, eta “Bota behar zituen gibelak”, eta “Korrika hasi zan” esan beharrean, ba “Ariñari eman zion” ta “Leloak halakoak” (“Tonto de él”). Ta esaera – esamoldeak-, euskerazko esamoldeak, jenteak gogoan hartzeko ta erabiltzeko bildumatxo bat egin nuen bukaeran, ipuin bakoitzari zegokiona, ta orduan hauek ere hortxe, hortik, datoz.

Ta ikusten denez, ba, nahi dana da aurrean geneukan ikasleari euskera ahalik eta aberatsena, eta Euskal Herrian erroak zituen zera, hizkuntza eta mundu ikuskera bat, zabaltzeko ahalegiña [ez gendun /ezkendun/]... Ez dakit lortu gendun. baiña saiatu egin giñan, eta akatsak egingo genittuen, seguru asko, baiña izpiritua hori, hoixe, zan: esan nahi dot ilusioa. Ez, guretzat klaseak – eskolak- emotera joatia ez zan lana, baizik eta erreto bat, ze, erronka bat, e? Egin daigun hau, eta umiak gustora joan daitezela etxera ta abar ta abar, ta hoixe hoixe zan orduan, bai, esan nahi dut.

14. Herri Gaztedi-ko kidea

- **Erref:** BRT-035/024
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:33:11. **Bukatu:** 00:35:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Seminarioan alfabetatu zen euskaraz, Karmelo Etxenagusiarekin hasieran eta beste batzuekin geroago. Euskal gramatikako liburuak bazeuden baina autodidaktak izan ziren. Herri Gaztedi-ko kidea. Euskalkitik euskara baturako pausoa erreza egin zitzaion.

15. Ikastolako ikasgaiak

- **Erref:** BRT-035/027
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:40:18. **Bukatu:** 00:42:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Hasierako Eibarko ikastolako ikasgaiak: euskal kultura, historia, gramatika, geografia, matematika, frantsesa... Euskal errodun ikasketak bermatzea zen helburu nagusia.

16. Elgoibarko ikastolan lanean

- **Erref:** BRT-035/030
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:44:36. **Bukatu:** 00:46:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

1978an hasi zen Elgoibarko ikastolan lanean. Letamendiaren testuliburua erabiltzen zuten. Andres (Alberdik) eta Anjelek, erdarakaden liburu bat argitaratu zuten.

17. Elgoibarko bertso eskolaren sorrera

- **Erref:** BRT-035/031
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:46:49. **Bukatu:** 00:50:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Elgoibarko Izarra elkartean sartu zenean, `Etxegiña´; bertsolariaren omenaldia prestatzen hasi ziren. Antton Aranburuk eskatuta artikulu bat idatzi zuen `Etxegiña´;ri buruz, hark asmatutako salbea aipatuz eta abar. Omenaldiaren harira, bertso-jaialdi bat antolatu zuten eta, geroago, bertso eskola sortzea bururatu zitzairen. Loritoneko pareko lokal batzuetan jarri zuten bertso-eskola. Orduantxe sortua zen bertso-eskolen mugimendua. Inguruko herrietako bertso eskola eta orduko bertsolari gazteak.</p>

Transkripzioa

Izarran sartu nintzen ni, gogoratzen naiz, ordurako Andres-eta ere bazeuden. Eta hor `Etxegiña´ Santa Ageda eskean ibiltten zen bat zegoen, Sebas Larrañagaren aitttitta, `Etxegiña´, eta harek ba egitten zittun bere... Santa Ageda eskian kalez kaleko kantaldiak eta abar. Eta omenaldia egin bihar zitzaiola eta omenaldi zererako Antton Aranburuk esan zidan: "HI, idatzi zak artikulu bat periodikuan honen omenaldia dala eta zelan berak asmatuak diran salbia eta abar", kantatzn dana: "Jangoikua... larala...."

salbe hori, hemen hiletetan kantatzen da salbe hori. Eta urte hartan bertan, 80an, egin gendun omenaldi bat `Etxegiña´ren erretiroa zala eta, bazihoalako. Eta gero, orduan, pentsatu gendun: eta zergaitik ez honekin batera jaialdi bat? Ta omenaldi hartarako bertso jaialdi bat ospatu zan. Lehenenengoa uste dot Gabonetan izan zala. Eta gero ya Trinitadeetan, Trinitade jaixetan, urtero egiten zan. Eta bururatu zitzaigun bertso-eskola bat sortzia. Eta ni prestatu nintzan bertso-eskola... klasiak emateko. Eta ematen genduzan hor Lorito ondoko lokaletan, Lorituaren aurrez aurre, beste partian dagon horretan lokal batzuk zeuden, gaur egun loradenda dagoen horren goiko partian, hor lokal hoietan. Txistulariek ere erabiltzen zuten gela hori euren ensaioak egiteko eta nik ere hantxe eman nituen lehenengo bertso zerak, bertso-eskolako... Ordurako ya hasitta zegoen bertso-eskolako mobimentua. Elgoibarren baiño lehenago hasitta zegoen Eskoriatza, Aretxabaleta... Almen inguruan, hor Sarasuatarrekin eta horrekin. Patxi Goikolea zan horko buru. Ta horrekin ta Isazelaia ta Arantza Loidi eta abar, bazeuden gaztetxoak. Eta geu ere hara jutun hasi giñen. Hemen Elgoibarko Izarrako arduradun orduan Irigoien bat zan -oin, ez dakit, kanpuan bizi dan bat- ta harekin ta abar. Ta jutun hasi giñan hara. Eta baita Zumaiara ere, Juanito Dorronsorokin batera. Jon Maia ta horrek mutikoak ezagutu nittun nik; bai Euzkitze ere, mutikoa zala ezagutu nuen nik. Euzkitze ta Sarasua eta Felix Iñurrategi mendian hil zana ere bai eta... Horrek bertso-munduan ibiltzen zian.

18. Elgoibarko bertso eskolako saioak, txapelketak...

- **Erref:** BRT-035/032
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:50:00. **Bukatu:** 00:52:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Bertso eskolara haur asko apuntatzen zirenez, bertso herrikoiak ikasten zituzten haurrekin. Bertso saioak eta bertso-paper lehiaketak egiten ziren urtero. Jaialdiak.</p>

Transkripzioa

Urtero halaxe. Astero klasiak eman. Pasatzen dana, klaro, ez gendun mugarik jartzen. Ta, orduan, jente asko apuntatzen zan ta askotan bertso-eskola baiño gehiago guarderia bihurtzen zan. Esan nahi dot umiak danak... eta danakain bertso-mundua... Ta ze eitten gendun? Ba kantuak ikasi. Zeranak, Bilintxek kantatu zittuenak, "Triste bizi naiz eta hilko banintz hobe" eta bestea eta... edo Txirritak kantatutako besteak eta... holan, bertsoak ikasi eta ikasi. Gero, gaiñera, Dorronsorok urte horretan talde bat alkartu giñan komeni zalako bertsoak ataratzia bere musika eta guzti, herriko tradizioan zeuden bertsoak, memorian zeudenak, eta baita ere Antonio Zabalak Hauspoan bildutako hoiek eta. Hoiei musikakin eta abar jenteak, umiak, bertso-eskoletan erabili zezaten. Eskolaz aparte, ikastolaz aparte, bertso-eskolak zeuden herrietan. Eta hemengo arduraduna neu izan nintzen 80tik 90era. 90ian beste batek hartu zuen ardura. Baiña 10 urte hoietan urtero eitten gendun umeen bertso-saio bat Herriko antzokian. Eta gurasoak biltzeko biderik onena umiak kantuan ipinttia da eta orduan aretoa bete egiten zan. Eta bertso-saio baten ondoren bertsoak etortzen zian: igual, Lazkao Txiki eta abar eta Lazkano

eta beste batzuk etortzen ziran. Eta umeek ere euren saioa egiten zuten. Eta holaxe eitten gendun, urtero-urtero eitten zan hori. Eta gero ya instituzionalizatu egin zan hori eta urtero dago bertso jaialdi bat Elgoibarko Izarrak antolatzen duena, baiña jatorria hortxe dauka horrek. Hor hasi zan, Elgoibarko Izarrarren ekintza bat bezala, hasiera hartan neuri tokatu zitzaidana aurrera eramatia. Eta gero lehiaketak egitten ziran, bertso-paper lehiaketak, eta sariak banatzen ziran jaialdi horretan eta hoixe zan egiten zana. Baiña orduan ez zan hemengoa bakarrik, e! Euskal Herri guztian zabaldu zan hori, bertso-eskolen mobimentua, eta ikusi da, gaiñera, leku askotan frutu handiak eman dituela, gaur egunian goi-goian dauden bertsolari hoiek bertso-eskoletakoak direlako.

19. Bertsolaritzak, hizkuntza, musika eta harremanak batzen ditu

- **Erref:** BRT-035/033
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:52:35. **Bukatu:** 00:55:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Elgoibarren, auzoetan zegoen bertsolaritzarako zaletasun gehiago kalean baino. Bertsolaritzak, hizkuntza, musika eta harremanak batzen ditu. Berriatuan eta herri txikietan, bertsozaletasun handiagoa egon da beti.

20. Francoren heriotza eta Ikastolen goradakada

- **Erref:** BRT-035/034
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:55:15. **Bukatu:** 00:57:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Elgoibarren immigrazioaren ondorioz euskara asko galdu zen eta euskara ez zen normaltasunez transmititu. Frankoren heriotzarekin, izugarri hasi zen ikastolaren eskaera. Metodologia berriak, testuliburuak...

Transkripzioa

- Baiño Elgoibar bera ere nahiko berezia baita. Ze hor immigrazioaren ondoren, 1950etik 60ra euskera galdu egin zuen jente askok herrian. Euskera etxian ez zan... iritsi zan momentu bat ez zala transmititzen. Hori frankismuaren eragiña izan zan.
- Zu hona etorri ziñanian ze giro topau zendun hemen?
- Hona ya... Bai, 75ian ya...
- Ya hobia zeuan.
- Klaro, ya ni etorri nintzenian, Franco hil zen urte bera zen ni hona etorri nintzenian, eta mobimentu... bai, gogorra zegoen. Esan nahi dut, bateko heriotzak, ETA zala, atentauak zirela, kartzelak zirela, manifak zirela... mobimentu bixi-bixia zegoen, bere alderdi on eta txarrakin.
- Baiña ordurako euskerian egoeria hobetxua zan.

- Hobeto, behetik gora zetorren eta. Klaro, Eibarren ikusten genduna: ikastola lehenengo 40, hurrengo urtian 80... biderkatu egiten zan. Ez... Batuketa barik biderketa gertatzen zan. Urte batetik bestera izugarri hazi zan demanda hori, jenteak nahi zuelako... ikastolak bazekarren, gaiñera, inobazio puntu hori, ezta? Eta ikastolan sartzen zan jentea ere, ba, ya prestatua zalako, ta metodologia berrietan, pedagogia berrietan... Eta, orduan, bai, ikusten da zera: herri-eskolak eurak ere, ba, gero eta gehiago, ba, jente euskalduna sartzen hasi zenez, ba, euskera hezitzeko eta euskerazko testu-liburuak eta gero eta zabalago zebiltzan. Eta alde hortatik, ba, mesede egin zuen ikastolak herri-eskolak ere ildoan sartu zitezen.

21. `Euskara eta Literatura´ ikasgairako testu-liburuak sortzen

- **Erref:** BRT-035/035
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:57:18. **Bukatu:** 01:01:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

<p>1982an Elgoibarko Institutuan lanean hasi zen. Garai hartan euskal ereduak bultzatzeko hiru institutu izendatu ziren (Elgoibar, Hondarribia eta Hernani). Elgoibarko institutuko Euskara Mintegiko kideek `Euskara eta Literatura´ ikasgairako lau testuliburu prestatu zituzten 1985etik 1990era bitartean, institutuetan erabiltzeko, eta Elkar argitaletxeak kaleratu zituen. Beste ikasgai batzuetarako (historia, matematikak) euskarazko testuliburuak sortu ziren. Saioka.</p>

22. Ikastolen publikazioa

- **Erref:** BRT-035/036
- **Iraupena:** 0:04:44. **Hasi:** 01:01:58. **Bukatu:** 01:06:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ikastolen publikazioan, Elgoibarko Ikastolak kooperatiba izaten jarraitzea erabaki zuen. Kilometroak Elgoibarren.

23. Barren aldizkariko hizkuntza-arduraduna

- **Erref:** BRT-035/037
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 01:06:42. **Bukatu:** 01:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa

Laburpena:

Barren aldizkariko hizkuntza-arduraduna izan zen. Batzuek oso zorrotza zela esaten zuten.

24. Familia bertsozalea

- **Erref:** BRT-035/038
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 01:09:00. **Bukatu:** 01:12:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Ipar Euskal Herrira ihes egindako anai batek eta soldaduskan zegoen beste batek, etxera eskutitzak bertsoz idazten zituzten. Bertso batzuk ekartzen ditu gogora. Guraso bertsozaleak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-27

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com